

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onespena ematea udalak babesturiko ondasunen katalogoaren, udalerriko arau subsidiarioetan jasotakoaren, aldaketari

Aiarako korporazioak, 20121eko martxoaren 18an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikinaren aurri adierazpenaren espedientea hastea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201.1 artikulua eta 199.2 artikulua arabera legezko aurri egoera justifikatuta dagoela iritzita.

Txosten hori jabeari helaraztea, eta 15 egun balioduneko epea ematea alegazioak egin ditzan edo egoki iritzitako dokumentazioa aurkez dezan, eta jakinaraztea aurri adierazpenaren espedientea eten egingo dela, eraikina zaharberritzeko edo eraisteko betebeharrak ezarri ezin direlako, harik eta eraikina udal katalogotik deskatalogatzeko espedientea ebatzi arte; eta, deskatalogatzen bada ere, ezin izango da eraitsi, harik eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsitako eraisteko egikaritze proiektua aurkeztu arte.

Bigarrena. Udal katalogoa aldatzeko espedienteari hasiera ematea, Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikina (622 zenbakiarekin katalogatuta agertzen dena) katalogotik kanpo uzteko. Izan ere, fatxadak eraikuntza bitxia bazuen ere, adreiluz eta egurrez egindako bilbadura eta itxitura galdu egin dira, segurtasun arrazoiengatik kendu baitziren, eta haiek gabe ez du interes kulturalerako beste elementurik. Bestalde, eraikinean ez da inor bizi, haren segurtasuna urria baita, eta, horrez gain, arriskua sortzen du, bide publikoari begira baitago.

Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egun balioduneko epean, ALHAOn iragarki bat argitaratuz eta jabeari zuzenean jakinaraziz, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Eta jendaurrean jartzeko epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari txostena egiteko eskatzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau eta udaleko zerbitzu teknikoaren 2021eko otsailaren 9ko txostenaren kopia jakinaraztea jabeari eta Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian kultura-ondarearen arloan eskumena duten organoei.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2021eko apirilaren 8a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA